

Poema, arkaitzean ikusi dozun poema ezin ori, nun dago zeure barrenean baiño?, zer da zeure bizitza baiño?

Zeure biotzeko arkaitzean poema, izanaren min loretua.

Poema ezkutu orren neurri eziña emon bearez —susmoaren neurriak bear lituke itzak—, elorri zaarraren alegia aitatu deuskuzu.

Arkaitz gorriko gorrian, urteroko ta lorazko itxaropen betiko bat bizi dau elorri zaarrak, erbesteko naigabea, guk, itxaropen ederrago ta betikoago bat bizi daroagun lez.

Poema ori —au— arkaitzean jaió ta azi jatzun, bizitza elorri zala usmatu zenduanean.

JOSE AZURMENDI ANAI
Arantzazukoa

Zein pozik nagon, zein txoro, elorria arima dauan paraje oneri begira. Jainkoa ikusten, edaten. Neure bizitza biziten.

Amaikatxotan egon natxatzu —ume bainintzan— arima potzuaren ondoenean nire sentipen lausoak ezin delineatuaz. Ideiaren billa, urduri, sentipen ertzik-bakoa, berbaren begietan ikusi guraz. Ezinka. Arimaren lurruna ez baileiteke kristaldu.

Lausoa begira, eguzkia, iturria, mendia, leizea begira eroaten deusku begiaren begiak sentipenaren atsa.

Elorrian, eder usain xee goxoan luzatu dot arima egoaren punta. Zeruraiño luzatu... Eder-tasuna berbaen aruntzaldetik egon, berbak ikutuaz justu.

Ta lur orrek erne dau poema. Arima elorritzkoaren, bidezkoaren poema. Berba, lurraren zotal ebagi barria.

J. A.

Beraz, nik ez nekian ezer be aura etorri aurretik. Dena berdiña zan argian. Ta etorri jatan goiz batean, goiz lanbrotsu ondiño garbi itzarri bakoan. Asperen mutu baten gaiñean eguna, pena eriola.

Ume polita nintzanean sartu jatan Jainkoa biotzean. Geroago aaztu nebana, jostaillua bedarrean legez. Joran bat mauka-mauka ausnartuten neban bidean.

Noizbaitaren tortura, ta ames baten kolorea, begion ur bareetan. Egun artan zerua jatxi zan, jatxi zan geiago, ta eskuetan eduki neban. Lanbroa, elorria, arkaitzak, ilusio busti bat aidean. Kanpai-ots birjiña elorrian.

Zuk eta biok egin genduan ames ez genduala ezagututen alkar. Itzartu giñan, Zu eta biok, ikaturik, ikusten egia ete zan ez genduala maitatzen alkar.

Emon zatxatazan... Emon nintxatzun... Asi nintzan kantari. Abesti emearen kizkur txi-karretan labaindu jataz arima izpiak, dardarti.

J. A.

Goibeltasun, —pentsamenduak lur baltzean irikia, itsaso berdearen berba illunak betea—, luze, geldi, bare. Ba-dakit ondo ez dauala izenik. Bertso bat... baiña izenik? Ildakoaren ama, ilgo danarena be.

*Alegori bat legez:
goizean goizik aurtxo erdi itzartuak irribarrez begitu eutsan amari. Ta irribarrez artu eban barriro lo.*

Irribarre amak be.

Illuntzean, itsasotik etorren aizea, irribarrez joan zan basoko pago artean, bere abesti melodiarren billa.

J. A.

*Ames, itzi eidazu apur baten bederik zure al-
tzoan jesar nadin. Begitu eidazu begi urdin
eder orrekaz nire begi txiki baltx onetara, begi
onetatik barnera...*

*Arrasti epeletan eliza torreari bueltaka dabil-
tzan elaiak baiño txoroago. Euria laster, ostoe-
tan salmuak armonia zabalez errezaten. Pozez,
eta miñez...*

*Pekatzuz eta damuz, goi-miñez eta lurrezko,
udazkenaren orbel moskorrak zurrunbilloan le-
gez gara.*

*Entzun eidazu ba, ames: ez jatzuz axola nire
bizikeraren suspenseak ala?*

*Zelan sartuten jatan arimaraiño abesti zatar
itzatsiaren arrakalaetatik eriotzaren usain gesa-
la. Nik ez il nai!*

*A, ta esaten be ausartuten ez nazan ori be
bai, ori be ba-da bizitza...*

*Ames, emon eidazuz egoak, ke garbi aren bi-
detik igo nadin. Izarrak bere maiteari esaten
deutsan maite-berba ixilla jakingo dot.*

J. A.

Zure begiok tristeki itaunduten deuste: norantz joian?

Zure begiok tristeki, begiotatik biotzeraiño sartuten jataz, illargia —il argia— itsaso loan legez.

Norantz joian, norantza?

Etorriaz, nire ondoan jesarri zara. Ta guriguri, nire bizkarrera malgotu zure buru baltz bigun ule-joria...

...andik joian... ez dakit zergaitik. Eberdi zan, eta aizea pago adarretan ebillen jolasti, orbelak askatuten. Adarren itzalak, bidearen maillatu more, lotsaturik egozan aren begien puntan... zergaitik?

Pago zaar nekatu aren paretik atzerantza begitu eban...

Andik, erreka legor udazken euriz ezefuaren zubitik aurrera. Illunabar gorrian, txoriak alkar musu emonik oeratu ziranean, andik joian, bidea pentsaten.

Ta negarrez joan zintxatazan ondotik, lanbroaren samin zuriak mantupetua... ez dakit zergaitik.

J. A.

“Bideak bizi nabe, barruko bide luze, elburu gabeak”. Ez gara bidazti, bide baiño.

Gau itxian, oroipen joanen pausoak entzuten dagon bide da gizona.

Oroituten zara, ama, itsasotik etorren laiño zuri aretaz? Eguna, euria legez, mendiak xurgatu eben, polliki-polliki. Ta errekastu biurria, barre algaraz joian, olgetan. Baiña gero, izarrak su artu eben, eta gau dana erre eban suak.

Bart, oroipen zaar umotu areek, erre jataz. Errautsa dot bakarrik eskuotan.

J. A.

Zelako egia: papel garbia izan dozu adiskiderik obeena. Ixillik, maitekor jaso deutsuz ari-ma giroak oro. Egunetan eta urteetan, axanpak eta pozak.

Izan eban Don Quijote'k —diñostazu— gudu ikaragarri bat erraldoiekaz. An besarkatu ziran bi amaigabetasun: amesa ta bizitza batetik, erio-tza ta ilusioa bestetik. Freston jakintsu inbidiosoak aizerrota biurtu eutsazan erraldoiak.

Zuk, aitzitik, —eta jakinaren gainean— aizerrotakaz diarduzu. Atzetik, forma orrekaz aldatua, jiganterik aundiena ta gaiztoena baidozu asmatuten... Dabid'ek barriz, amar milla il eban.

Agur, ta goazen aurrerantz, bakoitza geure bidetik, kantari... Abestiak egingo dauan bide onetatik etorriko jaku Jainkoa, damu dadinean.

Ta orain kanpaiak... urrun elburua. Urrundik, intziri espirituzko bat elduten jat, ume jaiobarri illa lako. Aidean geratuten da iñoiz jausi gabe. Bidean, tristura larua dau noizaldiak arnasartuten.